

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Gastu orokor eta jaietarako Kanpezuko administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko deialdia

BDNS (identifikatzailea): 499295

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Kanpezuko udalerriko administrazio batzarrek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntza hauek, baldin eta zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean badituzte.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen helburua da Kanpezuko udalerria osatzen duten herrietako funtzionamendu gastu orokorrak eta jaietan eragindako gastuak ordaintzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Korporazioko udalbatzak 2020ko martxoaren 3an onetsitakoak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Hauek izango dira, gehienez, administrazio batzarreko emango diren dirulaguntzak:

Gastu orokorretarako 2020rako emandako zenbatekoa: 20.000,00 euro; horietatik, ehuneko 60 linealki banatuko dira erakunde guztien artean, eta gainerako 40a urtarrilaren 1ean herrigune bakoitzak dauzkan biztanleen arabera.

Materiala erosteko dirulaguntza: 5.000,00 euro, erakunde guztien artean linealki banatzekoa.

Jaietarako dirulaguntzak: 5.000,00 euro, ehuneko 60 linealki erakunde guztien artean, eta gainerako ehuneko 40a, urtarrilaren 1ean herrigune bakoitzak dauzkan biztanleen arabera.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Dirulaguntza eskaera eta gainerako agiriak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 27an bukatuko da, egun hori barne. Herrietako jaiek eragindako gastudak banan-banan aurkeztu ahal izango dira, haiek ospatutakoan; baina, betiere, azaroaren 27a baino lehen.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Bai eskabidea, bai deialdia honako webgune honetan daude eskuragarri: <http://www.campezo.eus/ayuntamiento/subvenciones//eu> (izapideak/urrez aurreko izapideak/dirulaguntzak).

Santikurutze Kanpezu, 2020ko martxoaren 9a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO